MEDIKUNTZAKO GRADUKO HIRUGARREN KURTSOKO IKASLEEKIN KOMUNIKAZIO-TREBETASUNAK LANTZEN

Naiara Ozamiz
Sonia Ruiz de Azua
Virginia Guillén Cañas
Miren Agurtzane Ortiz-Jauregi.

eman ta zabal zazu
UPV EHU
MEDIKUNTZA ETA ERIZAINTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE MEDICINA Y ENFERMERÍA
50 URTE AÑOS

SARRERA

- 2013.urtetik, EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean, Medikuntzako Graduko hirugarren mailako ikasleei Komunikazioa eta Etika ikasgaia irakasten zaie.
- Komunikazioaren atalari dagokionez, ikasleari harreman terapeutikoak duen garrantzia eta eraginkortasuna irakasten zaizkio.

HELBURUAK

- Medikuntzako Graduko ikaslea medikuaren lanbidearen errealitatera hurbiltzea.
- Mediku-paziente, mediku-familia eta lantaldean sortzen den komunikazioaren aspektu desberdinak ikastea.

METODOAK:

- Ikasleek honako jarduera hauek egiten dituzte komunikazioaren alderdiak lantzeko:
  - Klase teorikoak
  - Klase praktikoak
  - Rol playingak

KLASE TEORIKOAK

- Ahozko eta ez ahozko-komunikazioa.
- Mediku-paziente harremanaren ezaugarri nagusiak.
- Komunikazio-trebetasunak.
- Komunikazio-estiloak.
- Komunikazioaren ezaugarri psikoterapeutikoak.

KLASE PRAKTIKOAK

- Elkarrizketa klinikoa, nola eman berri txarrak, trebetasun sozialak, komunikazio-teknikak doluan eta egoera zailetan.
- Horretarako, bideoak, eztabaidak, galdetegiak, kasu klinikoak eta bilaketa bibliografikoak aztertzen dira.



ROL PLAYINGAK

- Ikasle guztiek rol playingak praktikatzen dituzte kurtsoan zehar eta komunikazio-trebetasunak lantzen dituzte egoera desberdinetan.
- Kurtso-amaieran rol playingetan izaten dituzten trebetasunak aztertzen dira, ikaslearen trebetasunak ebaluatzeko.

- Paziente agresiboak maneiatzea.
- Pertsona nagusiekin komunikatzea.
- Negoziazioa.
- Medikuaren profesionaltasuna zalantzan jartzen duen pazientea informatzea.
- Kontsultaren arrazoia zehaztea.
- Pazientearen eskaerei ezetz esatea.
- Tratamenduarekiko atxikimendua lantzea.
- Tratamenduaz informatzea.

- Ahozko eta ez ahozko komunikazioa lantzea.
- Agurra eta itxiera.
- Entzute aktiboa.
- Enpatia.
- Testuinguru soziofamilarraz galdetzea.
- Aldagai psikologikoak arakatzea.

ROL PLAYING ADIBIDEA (BERRI TXARRAK)

- Larrialdietako medikua zara. Paziente batek auto-istripu bat izan du, eta oso egoera larrian heldu da larrialdietako zerbitzura.
- Zenbait aldiz suspertzen saiatu arren, hil egin da.
- Andregaia itxarongelan dago, eta berri txarra eman behar zaio.
- Zure helburua andregaiari berri txarra jakinaraztea da.

- 30 urteko emakume bat zara.
- Goizean, lanerako bidean zindoazela dei bat jaso duzu. Deian, zure senargaiak auto-istripu bat izan duela esan dizute, eta larrialdietan egoera larrian dagoela jakinarazi.
- Larrialdietara joan, eta itxarongelan zaude gerta daitekeenagatik oso urduri eta beldurturik.
- Medikuak berri txarra ematen dizunean, shock emozionaleko egoera batean geratuko zara, zer gertatzen ari den ondo ulertu barik eta egoera ukatuz.
- Ondorengo esaldiak erabil ditzakezu: “Hau ez da posible”, “ezin daiteke bera izan”, “erratu zarete”.
- Elkarrizketa amaitzean zure egoera emozionala shock-egoerakoa izango da oraindik ere; hau da, ezin izango duzu gertatutakoa sinetsi.

MEDIKUARENTZAKO INFORMAZIOA

PAZIENTEARENTZAKO INFORMAZIOA

KOMUNIKAZIOA OROKORREAN

- Pertsonarteko harremanen oinarriak eta estiloak aztertzen ikasten du.
-Komunikazioan sortzen diren emozioen interpretazioa egiten ikasten du.
-Enpatia-jarrerak garatzen ditu autoezagutzaren bitartez

-Berri txarrak ematen ikasten du.
-Historiak eta txostenak modu argian idazten ikasten du pazienteentzat, familientzat eta bestelako profesionalentzat.

-Jendaurrean hitz egiten ikasten du.
- Testuinguru sozialean eta klinikoan harremanak izateko gaitasunak garatzen ditu.

TREBETASUN KLINIKOAK

KOMUNIKAZIO-TREBETASUNAK

EMAITZAK

ONDORIOAK

- Autoezagutza pertsonal eta besteen ezagutzaren bitartez, Medikuntzako ikasleak komunikazioaren garrantziaren kontzientzia hartzen hasten dira graduaren hirugarren mailatik.
- Hori lortzeko, ahalik eta estrategia praktikoenak erabiltzen dira, eta urtero estrategia horiek hobetzen dira, ikasleak errealitate klinikotik ahalik eta hurbilen sentitu daitezen, eta komunikazioaren garrantziaren kontzientzia hartu dezaten.